araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Gizarte Politiken Sailak 361 milioi euro bideratuko ditu azken hamarkadako gizarte baliabideen hazkunde handiena finkatzeko

Gorka Urtaran foru diputatuak nabarmendu du kontuek finkatu egiten dituztela foru sarean legegintzaldian zehar sartutako 324 plazak

2027rako aurrekontu proiektuak 100 plaza publiko berri sortzea aurreikusten du adinekoentzat, eta % 10 handitzen ditu ZLPEak, zeinak baitira plaza pribatuak ordaintzen laguntzen duten prestazioen zenbatekoak

GOFEren aurrekontua % 11 handiagoa izango da, eta horri esker, garraio egokitua berritu ahal izango da, Bero Planaren neurri berriak aktibatu ahal izango dira, eta aisialdiko eta familia atsedeneko programak indartu ahal izango dira

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 19a. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak 361,6 milioi euroko aurrekontu errekorra kudeatuko du 2027an, lurraldeko erronka demografiko eta sozial nagusiei emandako erantzuna indartzeko eta legegintzaldian garatutako gizarte zerbitzuen sarearen hedapena finkatzeko. Sare horren ezaugarria da egoitza baliabide, zentro espezializatu eta kolektibo desberdinei zuzendutako arreta programa berriak sortzea.

Gizarte Politiken Saileko foru diputatu Gorka Urtaranek gaur aurkeztu du Arabako Batzar Nagusietan bere sailaren 2027rako aurrekontu proiektua; hau da, "*finkatze eta hedapen"* kontu batzuk, gizarte arretako erantzukizun publikoko sarearen hazkundea finkatzeko eta lurraldeko zaintza premien gehikuntzari egokitutako erantzuna bermatzeko sortuak. "*Aurrekontu honek aukera ematen digu azken hamarkadan egindako gizarte baliabideen zabalkuntza handiena finkatzeko eta biztanleen zahartzeak dakartzan erronkei erantzuteko sistemak duen gaitasuna indartzeko, laguntza eta babesa behar duten beste kolektibo batzuei arreta emateari utzi gabe*", adierazi du.

Kontu hauekin, Gizarte Politiken Sailak hazkunde aldi bat amaituko du, eta horrek erantzukizun publikoko 324 plaza berri sartzea eta gizarte zerbitzuen foru sistemaren arreta gaitasuna indartzea ekarri du.

Datorren urterako aurrekontuetako zenbatekorik handiena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari (GOFE) dagokio, 322 milioi euro izango baititu. Urte arteko hazkundea 32,5 milioikoa izango da, hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta % 11ko igoera izango du. Kontu horiei esker, adinekoen eta mendekoen arreta indartu ahal izango da, eta jarduketak bultzatu, besteak beste desgaitasunaren, osasun mentalaren, haurren babesaren, gizarte bazterketaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokaren arloetan.

Adinekoen arretak bilduko du berriz ere sailaren aurrekontu ahalegin nagusia, 121,7 milioi eurotik gorako zuzkidurarekin, hau da, GOFEren aurrekontu osoaren ia % 38. Aurreikusitako jarduera

Raquel Ugarriza Mendibil – rugarriza@araba.eus - 945 18 19 02 – prentsa.araba.eus

nagusien artean, nabarmentzekoa da adinekoentzako itunpeko 100 plaza berri sartuko direla datorren apiriletik aurrera, haietatik 60 eguneko zentroetan eta gainerako 40ak egoitzan. Plaza gehiago egote horrek partida horren aurrekontua bost milioi euro baino gehiago handituko du, 15 milioi eurora iritsi arte, eta Salburuan egingo den zainketa zentroaren lizitazioarekin osatuko da, zeina datozen egunetan onetsiko baita.

29 milioi mendekotasunaren prestazio ekonomikoetara

Era berean, sailak 29 milioi euro baino gehiago bideratuko ditu mendekotasunaren prestazio ekonomikoetara. Nabarmentzekoa da zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren (ZLPE) zenbatekoak asko handitu direla. Neurri horren helburua da erraztea laguntza baliabideak eskuratu ahal daitezen eta familien ahalegin ekonomikoa arintzea. Laguntza horrekin (1.200 pertsonak jasotzen ditu Araban), egoitza pribatua ordaintzen laguntzen da plaza publikoko itxaron zerrendan dauden bitartean. 2027rako aurrekontu proiektuak laguntza % 10 handitzea aurreikusten du, hilean 1.243 eurora iristeraino, zeina baita gehieneko zenbatekoa mendekotasunaren 3. gradurako.

Gainera, etxeko laguntza zerbitzua (ELZ) 10 milioi euroz hornituko da, eta 500.000 euroko partida bat aurreikusten da Bero Planerako, foru zentroetako ingurumen baldintzak hobetzeko eta erabiltzaileak eta profesionalak tenperatura altuen inpaktutik babesteko.

2027rako kontuek desgaitasuna duten pertsonentzako jarduketak ere indartuko dituzte, 58 milioi euroko zuzkidurarekin, haien autonomia pertsonala sustatzeko, bizitza independenteko proiektuak bultzatzeko eta arreta espezializatuko baliabideak finkatzeko.

Gorka Urtaranek nabarmendu duenez, hilabete honetan bertan hasi da lanean Laudioko eguneko zentro berria, 7,5 milioi euro bideratu dira Apdemak kudeatutako laguntzadun etxebizitzetara, eta aisialdiko, parte hartze sozialeko eta familia atsedeneko programak indartu dira. Programa horietan, udako jardueretarako aste bat gehiago eta atsedenerako bi asteburu gehiago sartzen dira.

Era berean, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen elkarteekin egindako hitzarmenak 4 milioi eurotik gorakoak dira, eta horrek aukera emango du egoitza baliabideak, errehabilitazio psikosozialeko programak, laguntza komunitarioa, familientzako laguntza eta autonomia pertsonala eta gizarte inklusioa sustatzeko jarduketak mantentzeko eta handitzeko.

Garraio egokituko flota berritzea

Horri gehitu behar zaio desgaitasuna duten pertsonentzako eta adinekoentzako garraio egokituaren lizitazio berria, 6 milioi eurotik gorakoa. Horri esker, linea guztiak birdimentsionatu ahal izango dira, joan-etorrien denborari dagokionez eraginkortasun handiagoa bilatuz. Gainera, lehen aldiz, Gurutze Gorriak kudeatzen duen Eguneko Arretarako Landa Zentroetarako garraioa sartuko da. Bi kasuetan, autobus flota berrituko da, eta ia 700 pertsona joango dira bertara egunero.

Bestalde, Indesaren aurrekontua 31 milioi eurotik gorakoa da, iaz baino % 4 handiagoa, eta horrek indartu egingo du desgaitasuna duten pertsonak Araban laneratzeko tresna nagusi gisa duen zeregina.

Haur, nerabe eta familientzako arretak 32 milioi eurotik gorako zuzkidura izango du, adingabe eta gazteentzako babes eta laguntza programak indartzen jarraitzeko.
Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak aipatutako berrikuntzen artean, bakarrik dauden gazte migratzaileei zuzendutako 10 plaza berri sortzea dago, beren autonomia eta gizarteratze prozesuak

errazteko adinez nagusi izatera iristen direnean.

Kontuei esker 3,7 milioi euro bideratu ahal izango dira Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatura, zeina funtsezko tresna baita familiei laguntzeko, guraso gaitasunak indartzeko eta arrisku eta babesgabetasun egoerak prebenitzeko. Era berean, Hazaldi Larrialdiko Harrera Zentroak 2,4 milioi euroko zuzkidura izango du, eta horrek babes neurriak behar dituzten haurren berehalako arreta bermatuko du.

Aurrekontu proiektuak neurri berriak jasotzen ditu gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonentzako arreta hobetzeko, 11 milioi euroko zuzkidurarekin. Haien artean, nabarmentzekoa da datorren abenduan gaueko harrera baliabide berri bat abian jarriko dela, eta datorren urtean hedatuko da erabat.

Sailak, halaber, eutsi egingo dio indarkeria matxistaren biktimei arreta integrala emateko eta eraginpeko emakumeei eta adingabeei zuzendutako baliabide espezializatuak indartzeko konpromisoari, eta 4,5 milioi euro bideratuko ditu neurri horietara. Neurrien artean, nabarmentzekoa da plaza gehiago daudela Gizarte eta Hezkuntza Arloan eta Arlo Psikosozialean Esku Hartzeko Zerbitzuan (SISEP).

2027ko kontuek zainketekin lotutako sektoreen lan baldintzak hobetzera bideratutako partida espezifikoak ere barne hartzen dituzte. Aurrekontuan 3 milioi euro baino gehiago gordeko dira egoitza pribatuen hitzarmen kolektiboaren eraginetarako eta 1,5 milioi euro gehigarri soldata baldintzak hobetzeko esku hartze sozialaren eremuan. GOFEren plantillari dagokionez, % 4,5eko soldata igoera aurreikusten da, eta horri 500.000 euroko erreserba espezifikoa gehitzen zaio, aurrera egiteko lan baldintzak arautzeko akordio berrian.

% 60 handitzea gizarte eta osasun hitzarmenaren finantzaketa

Horrekin batera, sailak gizarte zerbitzuen sistemaren berrikuntza eta eraldaketa bultzatzen jarraituko du, digitalizazioko, zahartzearen ikerketako eta zainketen arloko berrikuntzako proiektu berriekin, bai eta tokiko zainketen ekosistemen ekimen berri baten garapenarekin ere.

Eremu horretan, foru diputatuak gizarte eta osasun eremuan lortutako "*aurrerapen garrantzitsua*" nabarmendu du, Eusko Jaurlaritzatik datorren finantzaketaren % 60 inguruko hazkundearekin gizarte eta osasun sistemen artean partekatutako jarduketetarako. Osasun Sailak gizarte eta osasun hitzarmenerako duen zuzkidura 7,7 milioi eurora igoko da 2027an, eta aurten, berriz, 4,8 milioi eurokoa.

"*Hazkunde hau foru baliabideetan ematen den osasun arretaren finantzaketa egokiagoa lortzeko legegintzaldi honetan egindako lanaren ondorio da, eta gizarte eta osasun koordinazioaren eta zaintza sistemaren jasangarritasunaren arloan lortutako aurrerapen garrantzitsuenetako bat da*", nabarmendu du Gorka Urtaranek.